

Anuntxi Arana

Saiak, putreak eta arranoak

Mendizaleen miresgarri izaten dira saiak, haien largabisten jo muga eta gure bazterrak erakusten dituzten liburu eta argazkietako lehen-gai ezin utzia. Ez dute lortu, ordea, behialako fama txarra gainetik kentzen. Alhapideak ustelkeriatik garbitzen dituztela ekologistek irakatsi eta guk ikasi dugunean, abere biziei erasotzen zaizkiela esaten digute orain abeltzain batzuek, eta badirudi gorrotatuak izatera kondenatuak direla berriz gure eskualdeko hegazti handienak. Sarraskijaleak baitira, besteen heriotzaz gizentzea eta hurkoaren malurra probestea leporatzen zaie, ez bereziki natur zientzien ikuspegitik, baizik eta metaforaz norbait gutxietsi nahi denean, politikoki batez ere, arlo horretan oso hizkera margotsua erabiltzen da eta.

Oso aspaldikoa da saien arbuioa, antzinako borroka zelaietan ageri da haien itzal iluna. Louvre-n dagoen sumeriar harri zizelkatu ospetsu batean ikusten da nola, garaileek garaituak zanpatzen dituzten bitartean, saiek gorpuzkinak bereganatzen dituzten. Eta hori zatekeen gudarien bukaera gaiztoena, Iliadan azaltzen denez: “Zakurrek eta saiek urratuko dute zure gorpu osoa”, ihaurti zion Akilesek bere eskuz heriotzua zuen Hectorri, behar bezalako ehorzketarik izango ez zuen ikara dastatuz hil zedin.

Ez da denetan hola izan, eta, hain zuzen, alderantzizkoa zen grekoen etsai eta sumeriarren hurbil ziren antzinako pertsiarrentzat. Mazdeistek eguzkitan uzten zituzten gorpuak, “isil dorreak” deitzen diren erai-kinen gainean, zeruko iza-kiek eramanda goiko paradisa hel zitezen; eta hala egiten segitu dute 1960an debekatu zieten arte: geroztik sairik ez omen da gehiago inguru haie-tan. Baxenabarreko Urkulu tontorrean eraikia den monumentu borobila isil



GAIZKA IROZ

dorrea ote zen espekulatu zen behiala, haren siluetak Iraneko “dekhma”k gogorazten dituelako —erromatarren trofeo dorrea izan zen ustea da orain nagusi—. Ohitura bera dute gaur egun Tibeten, eta hango eskualde batzuetan gorpuak pres-tatu egiten dituzte “hegazti santuek” jan ditzaten.

Sakratuak ziren saiak antzinako Egip-ton, Nekhbet goi anderearen itxura eta beste zenbaiten buru-apaingarria; baita, Goi Lurraldeko erregetzaren sinbolo gisa, faraon koroaren osagaia. Ateburuetan ezartzen zuten saiaren irudi ongilea, azpian pasatzen zirenak babes zitza-n, eta berezko bertute hori heriotzatik bizia ate-ratzeko gaitasunetik heldu omen zaio, bizitzaren zikloa eta berpiztea bideratzen dituelako.

Gure mundu aldrebesean, aldiz, arra-noa da goraipatzen, elikatzeko hil behar duen ehiztaria. Heraldikan daukan presti-gioa jantzita, eta gure ingurumentxoan beltz lumaztua, askotan inarrosi izan da aberriaren loriako. Eta aitzitik, putrea dei-tzen zitzaien iraindu nahi ziren aurkari

politiko hurbilenei. Baina nork agindua da Arrano-mendi Butreaitz baino ikus-garriago dela? Ekialdeko euskalkietan, bestalde, arra-no (eta zehazkiago arrano beltza) esaten diote *gyps ful-vus* espezieari, hau da, putreari.

Orduan, zertara datoz txori istorio eta ornitologia ergel hauek, azkenean denak ber-din antzekoak direla aitor-tzeko bada? Eta halere, paregabea da putrea. Goian zabal-zabala pasatzen ikus-ten dugunean edo, apal eta gure buruari hurbil iraga-tean, haren lumen xuxurla aditzen dugunean, dudarik ez dugu: hilik ote gauden usnatzera hurreratu bada ere,

hura da euskal kantutegiko abesti ede-rean begiesten den hegaztia. “Arranoak bortietan, gora dabil-tza hegaletan...”. ■

Gure mundu aldrebesean, aldiz,
arranoa da goraipatzen, elikatzeko hil behar
duen ehiztaria. Heraldikan daukan prestigioa
jantzita, eta gure ingurumentxoan beltz
lumaztua, askotan inarrosi izan da aberriaren
loriako. Eta aitzitik, putrea deitzen zitzaien
iraindu nahi ziren aurkari politiko hurbilenei.

Baina nork agindua da Arranomendi
Butreaitz baino ikusgarriago dela?